

UDAL PLANGINTZAKO AHOLKU BATZORDEAREN BATZORDE IRAUNKORRA. BILERAREN AKTA

Eguna: 2024ko martxoaren 7a.

Lekua: Tokiko Gobernu Batzarra

Ordua: 17:00 h

Bileran izan direnak.

- **BATZORDEBURUA**: Miren Nekane Arzallus Iturriza, alkateak eskuordetuta.
- **KIDEAK**:
 - Ricardo Burutaran Ferré, EH BILDUren ordezkarria
 - Jon Goikoetxea Labaka, alkatearen ordezkari.
 - Vanessa Vélez de Pablos, PPren ordezkarria.
 - David de Miguel, PSE-EEren ordezkarria.
 - Javier Nadal Fernandez, Elkarrekin Podemosen ordezkarria (17:30ean sartu da).
 - Harkaitz Aranburu, auzo-elkarteen ordezkari.
 - Jon Chavarri Sarasua, Hirigintza Jasangarriaren zuzendaria.
 - Rafael Farias Blanc, Etxegintzaren kudeatzailea.
- **IDAZKARIA**:
 - Jon Mikel Garagarza Roteta, Hirigintza Antolamendu eta Betearazpeneko Zerbitzu Juridiko Administratiboaren burua, Udaleko idazkari nagusiak eskuordetuta.

Arkitektoen Elkargoaren ordezkari Xabier Agirre Alzuruk ezin zuela etorri gaztigatu du.

17:00etan hasi da Udal Plangintzako Aholku Batzordearen Batzorde Iraunkorraren bilera, gai-zerrenda hau zuen deialdiari erantzunda.

Aurrena, etorritakoak aurkeztu eta etortzeagatik eskerrak eman dizkie batzordeburuak haiei.

1.- Alkolea parkeko ("EG.15 Egia" HE) eta Martuteneko (MA.09 Martutene HE berria) transformazio azpiestazioetako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra aldatzeari behin-behineko onarpena ematea.

Batzordeburuak hartu du hitza eta, labur-labur, azpimarratu du denen hobe beharrekoa dela Iberdrolaren bulegoak Garberatik Martutene alderako igoeran jartzea, eta, orobat, nabarmendu du ez direla arreta publikoko bulegoak izango. Era berean, adierazi du Alkoleako pasabidean den eraikina erregularizatzeko ere aprobeztatu dutela, bizitegi-erabilerako eraikina dela-eta, izan, hura.



Ondoren Hirigintza Jasangarriaren zuzendari Jon Chavarri eman dio hitza batzordeburuak, eta bi pantaila erabiliz egin du aurkezpena hark.

Aurrena, Alkolean zer egin behar duten azaldu du. Esan du, jarrita, "h.00" lursail xehatua izatea dagoela jarrita, baina, izan, etxebizitzak direla, eta, beraz, a.30 eraikin irekiko bizitegitarako kalifikatuko dutela. Ez dago kudeaketa edo urbanizazio aldetik ezeren esku-hartzerik egin beharrik proposatutakoa aurrera ateratzeko.

Martuteneko transformazio azpiestazioaz, berriz, adierazi du hiri-eremuaren mugakide den lurzoru urbanizaezina dela orain, eta mantentze-sistema guztiak zentralizatu nahi dituztela han. Egiturazko antolamendua eta antolamendu xehatua jasotzen ditu dokumentuak, eta lursail osoaren kalifikazio xehatua "h.00" da. Jarduerari utziz gero, ez da merkatura ateratzerik izango.

Proposatutako eraikinak sestraz gainetik hiru solairu izango lituzke, bulegoetarako eta beste zerbitzu batzuetarako; sestraz behetik solairu bat, ibilgailuak aparkatzeko eta biltegitarako; eta aparkaleku bat kanpoan.

Eta espaloia hobetu eta sarbideak doitu ere egingo dira.

Batzordeburuak hartu du hitza, eta 27. poligonoari buruzko alegazio bakarra izan dela eta onetsi egingo dela hura esan du.

Ricardo Burutaranek hartu du hitza, eta gogorarazi du hasierako onespeneraren aurkako botoa eman zutela haiek. Haren ustez, denen hobe beharra ez dago justifikatuta. Esan du ez dela ahaztu behar langile asko bilduko dela tokia hartan, Lau Haizeta parkean dagoela eta jarduketa horrekin Lau Haizeta parkearen barrua eraldatzen jarraituko dutela. Era beran, esan du jarduera horren aurkako genero-txosten argi bat dagoela, eta espedientean ez dagoela genero-txosten horren gaineko erantzun teknikorik.

Esan du leku hori ez dela segurua –eta gauez gutxiago–, eta ezta irisgarria ere. Kezka ematen diola egoerak. Ikusten dela genero-txostenak betegarriak direla Udalarentzat, baina legeak ez dituela horretarako jartzen txosten horiek.

Alkolearen gainean, Ricardo Burutaranek galdetu du ea kutxatik pasako diren; ezetz uste duela hark, baina kalifikazioa aldatu egingo dela eta pasatu egin behar luketela.

Batzordeburuak erantzun du baietz, begiratzen direla genero-txostenak, eta horrelako bulegoak ez direla hiriaren erdigunean izaten. Azkenik, esan du hemen egiten ez badute, Bilbora joango direla.

Ricardo Burutaranek esan du beldurraren bandera astindu duela zinegotzi eskuordeak, Bilbora joango direlako horrekin. Ahalik eta etekinik handiena ateratzea dela Iberdrolak higiezinak kudeatzeko duen modua, eta ez dagoela lurzoru urbanizaezinean edozein basakeria egiten uzterik. Badela saihestu beharreko joera bat, lurzoru urbanizaezinen mugan presioa egin eta muga harago eramaten saiatzen direla eta.

Bozketari ekin aurretxoan, Javier Nadal ailegatu da. Egian plan berezia egitea nahikoa litzatekeela adierazi du, eta batez ere Martuteneko jarduketari egin dio kritika, uste baitu Hiri



Antolamenduko Plan Orokorren Arau Orokorretako 9. eta 27. artikulua urratu eta, beraz, legez kontrakoa dela hango aldaketa.

Generoaren gaineko eraginarena eta trafikoa handitzearena ere kritikatu ditu. Eta paisaiaren gaineko eraginak ere salatu ditu, punturen batetik fatxada ikusiko dela eta.

Boto zenbaketari buruzko eztabaida bat izan ondoren, Udal Plangintzako Aholku Batzordeak, **Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 109. artikulua** jarritakoa aintzakotzat hartu eta informatutzat jo du Hiri Antolamenduko Plan Orokorren Alkolea parkeko ("EG.15 Egia" HE) eta Martuteneko (MA.09 Martutene HE berria) transformazio azpiestazioetarako jarritakoa aldatzeko espedienteak. Lau (4) boto izan dira alde (Nekane Arzallus, Jon Chavarri, Rafael Farias eta David de Miguel), bi aurka (Ricardo Burutaran eta Javier Nadal) eta bi abstentzio (Vanessa Velez de Pablos eta Harkaitz Aranburu).

2.- Galderak eta eskeak.

* Deialdiarekin batera administrazio-espedienteak ere bidaltzeko eskatu du Javier Nadalek. Idazkariak esan du Hirigintza Sailean ez dagoela espediente elektronikorik eta arazo handia dela hori.

Jon Chavarrik uste du espedienteak osoa izan behar duela, administrazio-espedienteak ere hor izan behar duela, eta egokiena espediente elektronikoa bidaltzea dela. Uste du espediente elektronikoak egitate izan behar duela.

Ricardo Burutaranek hartu du hitza, eta digitalizatutako partean ere orrialdeak ez daudela argi jarrita esan du; kontraesan batzuk daudela paperetik digitalera pasatzekoan, eta espediente elektronikoa ez dela eskaneatzea bakarrik, gauza gehiago ere izaten direla (metadatuak, indexatzea eta abar).

Batzordeburuak horretan lanean ari direla erantzun du.

* Ricardo Burutaranek HAPOn Aurrerapenaren onarpena zertan den galdetu du.

Hirigintza Jasangarriaren zuzendariak erantzun du aurrerapena azaldu egiten dela, ez onartu. Une honetan arazo bat dagoela parte hartzeko eta komunikatzeko kontratuaren esleipenarekin. Ez dutela erakusketa publiko soil bat bakarrik egin nahi; herritarren parte-hartze eta komunikazio prozesua egin nahi dutela aurrena.

* Javier Nadalek hartu du hitza, eta azaldu du kontseiluaren heren batek bilkura egiteko eska dezakeela, eta lan hori egiten laguntzeko eskatu du. Idazkariak erantzun dio laguntza hori kontseiluko kide guztien datu pertsonalak ematea bada, datuak babesteko araudia urratzen den ala ez ikusi beharko litzatekeela.

Eta aztertzeko beste gairik ez dagoenez, 17:45ean amaitutzat jo dute bilera.

BATZORDEBURUA,

IDAZKARIA,

Izpta.: Miren Nekane Arzallus Iturriza

Izpta.: Jon Mikel Garagarza Roteta



Hirigintza Sostengagarria
Urbanismo Sostenible